

Donostia, 2016ko apirilaren 22a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, DBIZI ZERBITZUARI BURUZKOA

Loïc Alejandro Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIOA aurkezten du. Mozio hau GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, DBIZI zerbitzuak honako ordutegia du neguan: 06:30etik 23:00etara. Eta honakoa, udan: 06:30etik 24:00etara.

Donostiako auzoetara aldiari behin egiten ditugun bisitetan, herritarrek askotan esaten digute nahi luketela zerbitzua zabaltzea, ez bakarrik espazioan, denboran ere bai. Guk ere lehenago planteatu dugu DBIZIren geltoki gehiago jarri behar direla auzoetan, eta zerbitzua erabiltzeko ordutegia ere zabaltzea behar dela.

Kontuan hartu behar dugu beste garraio-zerbitzu publiko batzuek, autobusek adibidez, 24:00ak inguruan dituztela azken irteerak astegunetan. Beraz, garraioaren sinergiak hobetu nahi baditugu, giltzarria izan daiteke DBIZI zerbitzua erabiltzeko ordutegia zabaltzea, zerbitzu intermodal bat ezarri ahal izateko. Hala, DBIZIren erabiltzaileak bizikletaz joan ahal izango lirateke autobuseraino eta autobusen azken irteerakin lotu.

Oraingoan, gure ustez, herritarrei zerbitzu hobea emateko, nahikoa litzateke zerbitzua ordubete luzatzea neguan eta, horrela, ordutegi bera izatea urte osoan.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak esan zuen ez zegoela aurreikusita Dbiziren zerbitzuaren ordutegia zabaltzea, hori baliatuko lukeen pertsona kopurua ez bailitzateke nahikoa izango kostua konpentsatzeko.

Arrazoibidea ulertzen dugu, baina gaia berriz aztertzeko eskatzen diogu gobernari, honako arrazoi hauengatik:

- Egin beharreko ahalegina ez da handia: DBIZI zerbitzua ordubete beranduago bukatzeko baino ez dugu eskatzen.
- Zerbitzu publikoa da eta, hortaz, batzuetan ahaleginak egin behar dira hobetzeko, eragina oso-oso handia ez bada ere.

- Garraiobide publikoak elkarri hobeto lotuz gero, zerbitzuak hobera egingo luke, baina, horretaz gain argi geldituko litzateke garraio publiko, sostengagarri eta kalitatearen aldeko apustu garbia egiten dela.

Hori dela-eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari ordubetez luzatzeko DBIZIren ordutegia neguan. Hala, zerbitzuaren ordutegia 06:30etik 24:00etara izango litzateke urte osoan.

Izpta.: Loïc Alejandro

Irabazi Donostia taldeko zinegotzia